



# Lurzoruko bizia

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.

## HELBURUA

- Gure inguruko lurzoruan bizi diren izakiak hurbiletik ezagutzea.

## MATERIALA

- ◆ Lupa, tripodea, inbutua, bahea eta ontzi zabala.

## Urratsez urrats

Hasteko, gure ikastetxeko edo auzoko baratze, lorategi edo zuhaitzi bateko lur lagina hartuko dugu (humus, hosto eta guzti).

Gero, marrazkian ikusten den bezala ipiniko ditugu laborategiko

tresna guztiak. Hartu dugun lurra bahearen gainean ipini, eta piztutako lanpararen azpian jarriko dugu guztia, berotu dadin.

Denboratxo bat iraganda, ontziaren oinarrian, beroaren eta argi biziaren eraginetik ihes egin duen guztia aurkituko dugu. Lupaz begi-

ratu ondoren, lehengo tokira eramango dugu lagina.

Proba egin eta gero, erantzun galdera hauei:

- Nor bizi da gure lurzoruan?
- Zer gertatuko litzaieke izaki horiei lurra zikinduz gero?

